



Antonio  
Zavala  
Echeverria

1928-2009

BIDeGILEAK

Egilea:

**Josemari Iriondo**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Antonio Zavalari, eta Zavala Echeverria familiari
- Joxemari Iriondori
- Joakin Berasategiri
- Euskaltzaindiari

---

Zuzendaritza: Jerardo Elortza  
Argitaraldia: 1.a, 2010eko abendua  
Ale-kopurua: 2.300  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
Argazkilaria: Edorta Sanz  
Fotokonposizioa: EPS, S.L., Vitoria-Gasteiz • [www.eps-grupo.com](http://www.eps-grupo.com)  
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A., Vitoria-Gasteiz • [www.graficassantamaria.com](http://www.graficassantamaria.com)  
ISBN: 978-84-457-3108-6 (Lan osoarena)  
978-84-457-3112-3  
L.G.: VI - 542-2010



# ANTONIO ZAVALA ECHEVERRIA

(1928-2009)

## Langile aspergabe eta bakartia

**E**uskal Herriko bertsopaperak biltzen hasi baino lehenago Asturias aldeko artzainen istorioak, edota Santanderko paxiegoen kontu zaharrak batzen hasi eta saiatu zen Zavala gaztea. Eta Oñan (Burgos, 1950-1953) Filosofia ikasketak egiten ari zela, berriz, han inguruetako artzain eta nekazarien pasadizo eta kontakizunak jaso zituen, gai horiek erruz liluratzen zuten-eta gazte-gaztetandik. Hala ere, magisteritza urteak betetzeko Xabierreara bidali zuten (1953-1956), eta 1954ko Erregeen bigarren edo hirugarren hartan, Azkoitiko Kukuerra auzoko muti-

ko batek, «Ekarri'ittut, ekarri'ittut kanta-paperak!» oihu egin omen zionean, beste bilketak baztertu aldi baterako, lemari beste helmuga batzuetara eragin eta nora-bidez aldatzea erabaki zuen.

Xabierren, bada, han hasi zen bertsopaperak, adinez heldutako gizon-emakumeen kontakizunak eta zahar usaina zuen edo-zer begirune handiz aztertu eta jasotzen. Eta 2008ko urtearen azkenengo egunera arte bere *Auspoa* bildumaren eginkizunari jarraitzen saiatu zen beti, gehienetan baka-rrik, baina aspertu gabe, sekula inoiz inork gurean egin duen bat-batekotasunaren eta



Arreba Arantxarekin

kontu zaharren bilduma harrigarriena eginenez. Ramon Artolaren *Sagardoaren graziya* (Auspoa 1, 1961) liburuarekin hasi zen plazara azaltzen, eta Jose Manuel Arriolaren *Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak* (Auspoa 312, 2009) liburuaren azkenengo zuzenketak txukun egin eta inprimategitik plaza-

ratzeko puntu-puntu utzi zuen, bere langintza eskergaitzaren lekuko.

1954an hasi eta bertsopaperak bildu, gaiez eta egilez klasifikatu, iturri ezberdinak aztertu eta parekatu, bertsopaper bakoitzaren historiari zegozkion oharrak eta argitasunak jaso, egile ezberdinen biografiak osatu, argitara emateko behar zituen baliabideak eskuratu, liburuak banatu/saldu, dena berak egin zuen Antoniok, hasieran behintzat. Lehenengo, arreba Arantxak lagundu zion banaketan; geroago, Sendoa argitaletxeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (KM); baina liburuak hasi eta amaitu artekoa berak egin zuen beti.

Berrogeita hamar urte inguruan hala saiatu eta 2008ko urtezahar gauean ondoezik sentitu zen. Eta berak nahi zuen Xabierko gazteluan hil zen azkenik, 2009rako elkarrekin egin genuen hainbat amets eta proiektu (Uztapideren jaiotzeko mendeurrena, Pedro Mari Otañoren heriotzeko mendeurrena eta abar) erdibidean utzita.

Dena hementxe utzita joan zen; baina jesuita izatera eraman zuen goiko Jaunak bere altzoan izango al du betiko, horrela sinetsita bizi izan zen-eta.

## TOLOSAN JAIO ETA HAZIA

Batez ere, bertsopaperen munduan beretzat behin-behineko eragina izan zuen Tolosako herrian jaio zen Antonio Zavala Echeverria, 1928ko urtarrilaren 23an. Sei senidetan bosgarrena zen. Bere aita, Tiburtzio Zavala, tolosarra zen, inguruko herrietako idazkaria, ofizioz. Eta ama, Maria Echeverria, donostiarra berriz.

Antoniok berak askotan esan zuenez, erdarak indar handia zuen herrian jaio zen, eta ez zen bertso-giroan jaio eta hezia umetatik. Hala ere, larunbatero egiten zen merkatura inguruko baserritar jendea erruz biltzen zen orduan ere Tolosan, eta bertsopaper saltzaileak ere bai ugari. Eta merkatuan edo kale-ertzean bertsoak kantatu eta bertsopaperak saltzen ibili ohi ziren horien irudia beti presente eduki zuen.

Tolosan jaio eta hazi bazen ere, gurasoek Adunan zuten Zabale-txiki etxeari (Txanpon-etxea deitzen zioten adunarrek erai-kuntza horri, zerga batzuk han biltzen zirelako-edo) oso lotuta pasatu zuen haurtzaro-gaztaroa, harik eta 1945eko irailean Jesusen Lagundian sartu zen arte. Gero



Zavala anaia-arrebak

ere, jesuitetan estudiante zela, familiak Adunan pasatzen zuen udako oporraldia gehienetan, eta Antoniok bereziki maitea zuen herri hori. Eta haraxe joaten zen ahal zuenean.



Antonio Zavala ikastetxean

## ESKOLAZALE TXIKIA

Haurtzaroko lehenengo eskola-urteak Tolosan hasi berria zen *Escuela Vasca* izenean egin zituen. Baina han neska-mutilak nahasian ibiltzen baitziren, bere anaiak joaten ziren herriko *Hermanos del Sagrado Corazón* ikastetxean nahiago zuela eta hara joaten hasi zen pittin bat koskortu zenean. Gero, berriz, herriko Eskolapioetan hasi zen batxilergoa egiteko garaia heldu bezain azkar.

Historia eta literatura erruz maite omen zituen garai hartan ere, baina ez matematikak, kimika eta horiek. Bere aitorenak dira lekukorik argiena hori dena egiaztatzeko: «Goizeko zortzitan sartzen giñan eskolan, eta illunabarreko zazpi t'erdietan atera. Jolasak, berriz, futbola batez ere, eta pelota piska bat. Baiña oiek baiño geiago maite nuen nik mendia. Mendiarekin zoramena neukan orduan, eta gero ere bai. Mendian, berriz, artzai eta nekazari askorekin topo egiten genuen, orduan orain baiño geiago baitzan Euskal Errian eta bai atzerrian ere. Jende orrekin izketalditxo bat egin gabe ezin utzi nik, eta izketaldi oiek bultza ninduten lan ontan sartzera...».




Zavala anaiak



A. Zavala ikastetxean

Hamazazpi urte zituela, bere bizitzaren norabidea erabat aldatu zuen, eta Loiolako kolegiara joan zen, han jesuita ikasketak egiten hasteko.





Zavala mendizalea



Zavala mutikotan

## BERTSOZALETASUNA

Batez ere Adunatik zetorkion Antoniori bere bertsozaletasuna. Eta bertso-paperak bilatu, bildu, sailkatu eta argitaratzeko afizioa eta arreta, berriz, Tolosatik: «Tolosa izan ez balitz, ni ez nintzan bertso biltzen asiko. Txikitandik ikusten nituen bertso-paper-saltzaileak, Eskolapioetatik etxera bazkaltzera nindoala-ta. Antxe izaten ziran kantari merkatu-egunetan-da. Oiek izan ziran urteen buruan bidea erakutsi zidatenak».

Igandetako meza nagusiaren ostean eliza atarian, edota azoka egunetan Zerkausian ikusiko zituen paper-saltzaileak, astero hantxe bildu, ederki asko kantatu eta saltzen baitzituzten bertso-paperak. Eta koadro horrek erruz markatu zuen Antonioen bizitza.

Bat-bateko bertsolariak, berriz, Adunako festetan ikusi zituen lehenengoz: «Adunako Amabirjiña festetan entzun nituen nik leenengo aldiz bertsolariak. An bertsoetan izaten zanetako bat Asteasuko Bautista Ondartza zala uste det, Pello Errotaren illoba».

Inoiz ez zuen jakin Antoniok Ondatzaren bertso-lagunak nortzuk ziren. Behin batean, ordea, hamazazpi urteko gazte amezketar bat eraman zuten urteko bertso-saioa egiteko, eta bertsolari zaharrek gazteari eraso omen zioten, zirika. Baina erronka gogor joaz erantzun zien hark. Osorik ez, baina gero ere ondo gogoan zuen bertsoetako bat nola amaitu zuen gazteak:

Ni bezelako bertsolaririk  
ez da oraindik azaldu.

Amezketar hura gero Ameriketara joan omen zela entzun zuen, baina ez zuen izan haren arrastorik gehiago. Auskalo nor eta nolako bertsolaria zen, eta «Auspoa-rako moduko bertsoak ere egingo zituen ark, seguru asko; baiña bein betiko galdu nuen aren arrastoa» (Elkarrizketa, 1998).

Arrakasta eta harrera ona izaten zuten garai hartako bertso-paperek, egileek jendearen aurrean grazia ederrarekin kantatzen zituztenean, bereziki. Baina entzuten zituen doinu eta bertsoak baino zer-bait gehiago ere bazegoela han pentsatu zuen Antonio gazteak, eta lanari eskuak eransteko gogoia eta adorea handik sortu.



A. Zavala, Bixente Barandiaran, Felix Maraña eta Jose Erauskin (Txirritaren biloba)

Gero, berriz, 1954ko urtean jaioterrira joan udako oporretan eta han ikusi zuen bertso-papere-saltzaile bati papera erosi zion, baina galdu egin omen zuen. Hala ere, ondo gogoan hartu zituen bertso-saltzailearen izen-deiturak: Pello *Saikola*, Zestoa jaio eta Aginagan bizi zen bertsolaria zen. Eta handik urte batzuetara Gaztelu bertsolariaren hainbat bertso eta albiste eman zion hark *Gaztelu bertsolaria* (Auspoa 61, 1966) egiteko balio izan zizkietenak. Saikolaren bertsoekin ere liburu bat osatu zuen: *Zubeltzu eta Saikola bertsolariak* (Auspoa 93, 1970).



Kontxi Iturain, Uztapide, Uztapideren semea, Joakin Berasategi eta Antonio Zavala



Alfonso Irigoien eta Uztapide; atzean Bordari, Zavala eta Juan San Martin. 1959, Eibar

## JESUITETAN IKASTEN

### Urte ederrak Loiolan

Hamazazpi urte zituela Loiolara joan zen jesuitetan nobizidoa egitera, beste bi anaien bideari jarraituz. Eta han pasatu zituen urteak bereziki gogoratzen zituen Antoniok. Izan ere, Urola aldeko auzoetako eskoletara bidaltzen zuten estudiante-jendea ostegun arratsaldetan hurrei dotrina erakustera eta hola. Eta Antoniori Urrestillako eskola egokitu zitzaion —gure jaiotetxetik hurbil zegoen Garaiko basoko iturri eder hartan ur fresko ederra edan omen zuen hamaika aldiz—. Benetan gustura joaten

zela esan ohi zuen, hango neska-mutilek dena euskaraz ederki egiten zutela ohar-tuta. Oñatz eta inguruko beste mendi-auzoetara ere sarri iristen ziren; eta gazte-eraz tutik ez zekien baserritar jendearekin asko hitz egiten zuen.

Giro horrekin gozatu egiten zuen tolosar gazteak. Ez dago berari entzun besterik: «Euskal giro ori arnastu egiten zenuan jendearekin itz egitean. Eta artarako sensibildadea izan ezker, zure barrenean bere kutsua uzten zizun orrek. Neri beintzat orixe gertatu zitzaidan Loiolan pasa nituen urteetan... Urduñan ere berdin gertatu zitzaidan. Opor-egunetan mendira joa-

ten giñan komentua eta kale zuloa utzita, eta topo egiten genuen jendearekin asko itz egiten nuen. An iru probintzitan ibiltzen giñan gaiñera: Bizkaian, Araban eta Burgosen... Oso esperientzia ederrak izan ziran oiek denak neretzat...» (Elkarrizketa, Donostian 1999an).

### Xabierren irakasle

Loiolatik Urduñara joan zen (1946-1950), eta han ere berdín gertatu bide zitzaion: «An ere jende jatorra aurkitu genuen. Beno, egia esan, lurralde guzietan aurkitu det nik jende ona eta beti asko erakutsi didana» (Elkarrizketa, 1999).


Handik bost urtera, Burgosko iparraldean dagoen Oñara joan zen (1950-1953) filosofia ikasketak egiteko. Eta han «Nere txolarteetan historia pixka bat ikasten saiatu nintzan, eta ia-ia historia-bide orretan sartu nintzan gaiñera. Pentsa, ori egin izan banu, gure bertso zaarrak biltzea beste norbaitentzat geldituko zan seguru asko, naiz eta garai artan, askoren iritiz, baserritarkeria zan olako lanak egitea. Barregarria, utsaren urrengoa, ezertarako balio ez zuen zer bait zan ori. –Zertarako



Antonio Zavala

bildu olako paper zaarrak? –esaten zidaten ikasle lagunak. Antologia koskor bat egiteko balioko zutela paper oiek, agian, baiña ez liburuetan argitara emateko...».

Antonio Zavalaren lanerako adurrak eta argitasunak alderdi eder eta ikuspegi eskergea asko du, ez bairik gabe. Baina, besteak beste, Antonioren meritu handietako bat jende xehearekin hitz egiteko beti izan zuen gogo aseezina, arreta eta begirunea izan ziren, Euskal Herrian (Loiolan, Donostian, Urduñan eta Xabierren) bizi



izan zenean bezala Burgosen edo Aragoi aldean ibili zenean ere. Langile metodikoa zen, ibiltari nekaezina eta bazter miatzaille zuhurra, paperak bildu, oharrak eskuz hartu eta txukun asko nahi zituen argazkiak eginez ibili zen beti.

Harrotasun handiz aitortzen zuen behin eta berriz: «Euskal jendearekin ez ezik euskal liburuekin ere artueman ugaria izan nuen, euskal liburutegi ona genuen-eta eskura geure ikastetxeetan nai genuen liburua artu eta irakurtzeko... Bestalde, etxetik irten eta Gaztelako, Nafarroako eta Aragoiko erdal jendearekin topo egiten nuenean ere sekula ez nintzan eskutsik etortzen etxera. Nortasunez ondo jantzitako lurraldeak dira oiek denak, eta kontakizun eta erromantze ederrik entzun eta jaso nuen erri xee orren aotik. Zer esanik ez jota bizi eta indartsurik» (*Honoris Causa Doktore-Deustu*, 1999-Elkarrizketa, 1998).

Oñan filosofia ikasketak egiten ari zela, Pedro Migel Urruzunoren liburu bat irakurtzeko aukera izan zuen; eta ikaragarri gustatu zitzaion nonbait Elgoibarko apaizaren euskara, eta haren gauzak esateko modua eta erraztasuna. Izan ere, garai hartako

garbizalekeriak nazka ematen omen zion, eta Urruzunok euskara herrikoia eta iturri onekoa zuela ohartu zen, garaiko modak kutsatu gabea. Haren ipuinak eta bertsoak, berezkotasunez jantzita zeuden, Antonioren iritziz. Urruzunoren beste liburu bat ere erdi prestatua utzi zuen Antoniok, noiz argitara emango zain.

Aldi berean Pedro Mari Otañoren *Alkar* liburu ere aurkitu zuen ikastetxeko liburutegian, eta egun gutxiren buruan irakurri eta irentsi omen zuen, ahoa bete hortz utzi zuelarik, zizurkildarraren euskara eta kontakera-kantakeraz liluratuta. Hain maite zuen Adunatik hurbil zegoen Zizurkilgo semea zela jakiteak ere bihotza gogor ukituko zion, noski.

Oñako urte ederren ostean, filosofia ikasketak burutu eta teologia ikasketak hasi arte, hain maite izan zuen Xabierrera bidali zuten (1953-1956) Jesusen Konpainian ohizkoa zen maestrillo/magisteritza garaia betetzera. Eta han ere inguruetakoa nekazari eta artzainekin hitz egiten, eta Asturias aldeko artzainen eta Santanderko paxiegoen kontuak biltzen jarraitu zuen, harik eta aldaketa garaia etorri zen arte.



Antonio Zavala

# Bertsopaperak, Euskaltzaindia, *Auspoa* eta beste

## LEHENENGO BERTSOPAPERAK

Gorago irakurri dugunez, Antonio Zavala euskal alderdira bultzatu zuen gertaera Azkoitiko ikasle batek bideratu zuen, 1954ko Gabonetako oporren ondoren. Azkoitiko mutiko hori Kukuerra auzoko Larrume Haundi baserriko Alejandro Larrañaga zen, eta berea da ondorengo kontakizuna:

Gabonetako oporren ondoren Xabierra joan nitzenean eraman nizkion nik Antoniok esaten zuen kanta-paper hoiek. Baina, bertsopaper-kontu horrekin batera bada hor sekula inork esan ez degun beste histori polit bat ere. Liburu baten historia, alegia.

Antonio Zavalak berak ere ez zuen inoiz aitutzen liburu horren konturik, sufritu egiten zuen-da. Harrapatu egin zioten, eta neuk ikusi nuen negar egiten hori zala-ta... Liburu horrek historia haundia zuen gurean. Gure ama zanak esan ohi zuen, nik sei hilabete nituela Larrume Haundi baserria erre egin zala, Santa Ageda bezpera batean. Eta etxeak su hartu zuenean, ni lotan nengon sehaska, liburu hori eta beste bertsopaperak hartu eta leihotik atarira bota omen gintuela, erre ez gintezen.

[...]

Kubako gerraren historiak eta hola kontatzen zituen liburuak; baina baita beste gauza asko ere. Hemengo gerrari buruz



A. Zavala 1996ko *Argizaiola* saria jasotzen Durangoko liburu eta disko azokan

norbaitzuk jarritako dozena bat edo dozena ta erdi bertsopaper ere baziran han gure osaba Martinek bilduta, Francoren kontra Zepaik, Loidisaletzek eta hoiek jarritako bertsoak... (Elkarrizketa, 2009.06.04).

Antonio Zavalak berak osatzen du geroztiko historia, laburki. «Andik denbora asko

baiño leen, udako oporraldietan Azpeitiko Loiolatik leenengo eta Donostiatik urrena, eta eskutitzen bitartez bati eta besteari nere asmoen berri emanez ekin nion bertso zaar biltzeari, gazte izateak duen berotasunarekin» (*Txirrita*, Auspoa sail urdina, 1992, hitzaurrea).

## 1956: ARANTZAZUKO HITZALDIA

Halaxe hasi zen Antonio, jaiegun eta oportetan Euskal Herriko auzo eta baserrietara joanez, bati hau galdetu eta besteari hura eskatu. «Garai artan bartolokeri oiek biltzea barregarrikerietan ibiltzea zan askorentzat. “Ori zertarako?”, esango zizuten. Egia esateko, erdaldunak geiago animatu ninduten ni lan au egitera euskaldunak baiño. Auek, izan ere, garbizalekeria artean indarrean zegoenez, bertsoen euskera mordoilloa ez zuten begi onez ikusten. Alakoiei erantzuna ematen diet 1956an Arantzazun eman nuen nere leenengo itzaldi artan. Erdaldunak, berriz, aurre-iritzi oker ori ez baitzuten, onelatsu esaten zidaten: “Egin ezazu lan ori, zuk egiten ez badezu beste

ñork ez baitu egingo, eta orrek gero eta geiago balioko du”...»

Isilka eta bakarrik ari zen, baina haren lanaren oihartzuna azkar zabaldu zen. Eta hitzaldi bat eskatu zion Euskaltzaindiak, Arantzazun emateko, gerra ostean egin zen lehenengo biltzar irekian, 1956ko irailaren 15ean (*Euskera* aldizkaria, 1956). Inork besterik eskatu ez nonbait, eta gazteleraz hitz egin zuen, «Hace ya dos años que no hago sino leer y copiar *bertso berriyas*» aitortuz. Ordurako berrogeita hamar bat mila bertso bilduta omen zeuzkan, eta gehiago eskuratzeko esperantza osoaz ari zen lanean.

Hitzaldiaren gaia eta izena, «En busca de la poesía popular a través del País Vasco-Bertso berrien billa Euskalerrian zear» (*Auspoaren auspoa I: Auspoa*, 238). Bere egitasmo eta helburuaren deklarazioa egin zuen lehenengo hitzaldi hartan. Eta helburu hari jarraitu zion gero heriotzara arte.

1957ko abenduan eman zuen bigarren hitzaldia, Donostian: «Gure erriaren fedea, bertsoan ageri denez. Religio-bertsoak». Hitzaldi kaskarra prestatu zuela eta lotzaz joan omen zen —beti izan zen lotsatia



*Auspoa-Etor-Sendoa*

Zavala jendearen aurrean hitz egiteko—, eta hirugarrena, berriz, Bilbon eman zuen, «Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914-1918)» gaia aztertuz, 1958ko abenduaren 14an.

1961ean euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak; eta euskaltzain oso, 1964ko abenduaren 18an. Horrela eskertu nahi izan zion Akademiak euskararen eta herri-





Xabierren, Esnal, Urrutia eta Arejita euskaltzainak

-literaturaren alde egiten ari zen lan bikaina, ordura arte askok aitortu nahi izan ez zion meritua emanetz.

## BERTSOLARITZAN

Bazuen bertsolaritza-sail horretan nor izateko hainbat meritua eta prestakuntza; eta garai hartako bertso-jaialdi askotan ikusi genuen Antonio, bertsozaleen artean *Auspoa* liburuaren harpidetzak egiten, eta aldi berean bertso-jaialdiak magnetofonoz jasotzen. Bestalde, 60ko hamarraldian Euskaltzaindiak antolatu ohi zituen Bertsolari Txapelketetan epaimahaiko kide izatea egokitu zitzaion, Koldo Mitxelena, Antonio Arrue, Bordari, Juan Mari Lekuona eta abarrekin.

Ez zen, ordea, epaile lan horretan eroso sentitu inoiz, behin baino gehiagotan aitortu zuenez. Nahiago zuen entzule soila izan, edo liburu-saltzaile nahiz jaialdi-grabatzaile, bere artxiboa osatzeko ber-

tsopaperez eta bat-bateko bertsoz. Bere lagun maite Bordarik behin esan omen ziona askotan errepikatzen zuen: «Ark esan zidan bein bertsoa ez zala neurtzen pixura, metroz edo erlojuak eskuan artuta. Neurtzekotan ere, beste era batera neurtu bear zala bertsoa, eta neurtzeko zailtasuna ortik zetorkiola. Arrazoi aundia zuela pentsatu izan det beti».

*Euskalerriko Bertsolarien txapelketa* deitu liburu batean (Itxaropena, Zarautz, 1961) bildu zituen Antoniok Euskaltzaindiak antolatu eta Centro de Atracción y Turismo-ren laguntasunez 1960ko abenduaren 18an Donostiako Victoria Eugenioan egin zen txapelketako bertsoak. Eta bere hitzaurre/aurkezpenean idatzi zuena bitxia dela esango genuke, gaur egun holakorik asko pentsatzen ez badugu ere:

Orain arteko bertsolarien saioak, zenbat eta ederragoak izan, ainbat eta gauza tristeago bat zekarten: ainbeste bertso eder beti-betiko galdu izana, bat edo beste erriak buruz artzen bazuen ere. Gaur, berriz, beste konturik dago. Azken txapelketa ontan bost bat magnetofon bazeuden agertokiaren saietsean. Eta saio guzian

bertsolariak kantu-lanean eta tresna berri oien aria jira eta bira. Ari orrek eman du liburu au osatzeko bidea; baiña, oraingoan letra bakar bat ere galdu gabe.

## AUSPOA

### 1961: historia handi baten hasiera

1959ko uztailaren 30ean Loiolan apaiztu eta hurrengo egunean, San Inazio eguna izaki, meza berria Loiolan eman zuen. Eta abuztuaren 11n, bere jaioterrian, Tolosan. Eta *Auspoa* proiektuaren historia hantxe hasi zen esnatzen, bat-batean, ordura arte bildutako materialari irtenbide ona emateko.


Bere jaiotetxea herriko Santa Maria parrokiaren ondoan izaki, «Gaueko amabiak ziran. Miradoretik kanpora begira jarri nintzan, eta orduan, alboan dagon *Zeru Txiki* tabernatik gau-pasazale batzuk kantuan asi ziran. Zer kantatuko eta Ramon Artola tolosar bertso-jartzaille oparoaren bertso batzuk: *Bedeinkatua izan dedilla/sagardoaren graziya...* Andik bi urtera bertso-sail orrekin eman nion asiera *Auspoa* sailari, leenengo liburu orri *Sagardoaren graziya* izenburua jarrita».



A. Zavala *Honoris Causa* Doktore. Deustu, 1999.11.23.  
Lertxundi, Garmendia, Zavala, Lizaso eta Zendoia

Harpidedunak egitera abiatu zen berehalaxe atez ate. Bertsoak eta kontakizunak bildu, idatzi, sailkatu, liburuak prestatu eta moldatu, eta harpidedunen eskuetaraino luzatu, dena berak egin zuen hasieran. Baina, «Sorta ori akats askorekin jaio zan. Gu, izan ere, langintza ortan *aprendiz* ibili gabe asi giñan. Liburugintza, berriz, bai idaztearen aldetik eta bai argitara egoki ateratzeko ere, ez da batere gauza erreza» (Deustu, 1999.11.17).

Hasi aurretik propaganda egiteko orri batzuk atera zituen, eta jende askok baietz eman zion, harpidedun egingo zirela. Baina gero, liburuak banatu eta ordainak jasotzeko garaia heldu zenean, «jende askori



Biblioteca de Narrativa Popular

ez zitzaion gure emaitza gustatu, eta iru-reun bat liburu kobratu gabe gelditu giñan. Ipurdiko ederra izan zan ori guretzat...» (Deustu, 1999.11.17).

Horrela hasi zen ahozko literaturaren alorrean gure herrian egundo inoiz egin den bildumarik inportanteena eta osoena. Eta handik hona inork nekez pentsa zezakeen liburu-saila osatu zuen tolosar argiak: 317 liburu «Auspoa txikia» sailean (1961-2009); 6 liburu, «Auspoa berdea» sailean (1974-1976); 12 liburu handi «Auspoa urdina» sailean (1993-2002). Eta horiez gainera, Lazkao Txikiren *Irriz eta Malkoz I* eta *Irriz eta Malkoz II*; *Karlisten Bigarren gerrateko bertsoak*, eta *Euskal Erromantzeak-Romancero Vasco* bilduma harrigarria. Nork egin du beste horrenbeste gurean?

## Bertsoak eta prosa

*Auspoa* bilduma goitik behera begiratzen baduzu, bertsoz osatutako liburu asko aurkituko duzu, garai batean prosak baino harrera hobe izaten zuen-eta bertsoak harpidedunen artean. Hala ere, Zavalak zioenez, «garai batean bertso geiegi eta prosa gutxiegi ateratzen nuela ziotenak, ez dute orain, alderdi ortatik beintzat, aitzakiarik izango. Prosa au bertsoa bezin baliotsua da, eta auxe da euskeraz pentsatutako euskera». (Elkarrizketa, 1982). Eta idazle mordoxka bat lanean jarri zuen gainera liburuak argitaratzeko pozez.

Bere alderdi txarra ere bazuen horrek, ordea. Lehenaz gainera lana ugaltzen zion horrek Antoniori. Jendearekin hitz egin, gaiak zehaztu liburua egiteko, haria nondik nora eramán, nola idatzi eta banatu behar zuen esan idazle berriari, eta gero, idazlanak jasotzean, orduak eta orduak egin behar izaten zituen eskuidatzi horiek denak zuzendu, ordenagailuz idatzi eta sailkatzen, nola-halako letrak ahal zuen moduan irakurriz. Puntuazioa, kapitulazioa eta horiek ere berak egin behar izaten zituen gehienetan. Eta «nik debalde-

ko sekretariotza eskeintzen diot idazleari; eta, ala ere, bada ori dana naikoa ez dala irizten dionik», esaten zuen, penaz.

Azkenengo urteetako liburuetan prosaren prosaz urritzen ari zen bertso-liburuen sailari bultzada handia eman nahi izan zion, ordea, prosa-liburuen martxa pittin bat mantsotu eta bere artxiboan jaso eta sailkatutako material asko argitara emanaz.

*Auspoa* saileko hirurehun eta gehiago liburutan izan zuen bere aitatasun zuzena Zavalak. Bere *Bosquejo de historia del bertso-solarismo* (Añamendi, 1964) argitaratu zuenetik dozenaka artikulu, hitzurre eta komentario idatzi zuen. Horietako asko *El Diario Vasco* egunerokoan argitara emandako «Oñez eta jakin-miñez» sailean atera zuen (Auspoa 249, 1997; Auspoa 263, 1999; Auspoa 299, 2006). Azterketa, hitzaldi, hitzurre eta artikulu asko, berriz, «Auspoaren auspoa» sailean argitara emanda daude (Auspoa 239, 1996; Auspoa 262, 1999; Auspoa 300, 2006).

### Hasierako kritikak

Lehen ere esan dugunez, ez zen ordea denek maite zuten lanbideetan barrena abia-



J. M. Iriondo, A. Zavala, 1998.05.21

tu jesuita gaztea, askoren ustez pellokeria hutsak baitziren holakoak, barregarrikeriak, hutsaren hurrengoak. Komentuan bertatik hasita kritika gogorak egin zizkioten, penaz esaten zuenez. Bere lagundiko aita Aranzadik, adibidez, honela esan omen zion lehenengo liburua eskuartean ikusi zuenean: «Urteetan or jardun gera kurpilotik gogor esku-soiñuari *inpernuko auspoa* esanez, eta zuk orain liburu-sorta bati Auspoa izena jarri?».

Beste apaiz batek honela idatzi omen zion liburu hartu zuenean: «nola-alako liburu oiek etorkizunik ez dute. Auspoa ilda jaioda». Alabaina, bere lagundiko aita Juan Goikoetxeak, *Goikoetxea txikiak* alegia, «segi bide orretan gogotik, eta egin ezazu lan ori, biltzen dezun material orrek gero eta geiago balioko du-ta» esan omen zion. Penatxo zuela esan ohi zuen «euskaldunak eta bertsozaleak baiño geiago anima-

tu ninduten erdaldunak» hasitako bide horri serio jarrai ziezaion. Eta horixe egin zuen, Euskal Herriaren zorionerako.

Bazituen bere duda-muda gogorrek ere, *Auspoa* sailean egindako lanak izan zuen arrakasta urria zela-ta. Bazuen horretarako hainbat arrazoi. Besteak beste, euskal idazleen izendegi santua bere ondare proptzat duen jaun ahaltso askok ez baitio idazle izenik ere opa nahi izan Antoniori askotan. «Gero etorriko dira famak eta dirua!» eransten zuen, minez.

## BIBLIOTECA DE NARRATIVA POPULAR

*Auspoa* sailetik kanpora gelditzen zitzaion Nafarroa eta Aragoi aldean entzun eta jaso zuen hainbat kontakizun bitxi. Ibiltari nekaezina, mendizale porrokatua, eta belarriak erne eta begiak argi erabiltzen zituen horietakoa baitzen, hark beti bildu eta jasotzen zuen zerbait. Artzain eta mendiko gizonekin hitz-aspertu ederrak egiten ahalegindu zen Euskal Herrian eta kanpoan. Eta jende horrek zer esan ugari duela eta asko erakusten duela uste eta aitortzen zuen beti. Eta holakoetan bere buruari askotan esaten

zion: «Auekin ere liburu ederrik egin liteke, ba». Baina askotan atzera egin behar izaten zuen, lehen ere lanez gainezka zebilela-ta.

Behin batean, ordea, etxetik irten eta mendira joatea erabaki zuen, Xabierren bizi zela. Eta kasualitate harrigarria gertatu zitzaion bidean: Kaseda inguruan dagoen San Zoiloren Bardeetako ermita bidean aitona bat aurkitu zuen eta kontu kontari hasi ziren biok. Humbelino Ayape zen aitona hori. Berriketaldi luze hartatik sortu ziren *Biblioteca de Narrativa Popular* saileko hiru liburu eder, *Las tardes de la Bardena* izenarekin, lehentxego Indalecio Zaballa *Masio*-rekin egin zuen *La última trova* liburuari jarraipena emanaz.

Haiek kontatu eta Antoniok grabatu eta idatzi, horrelaxe osatu zituen sail honetan argitara emanda dauden hogeita bederatzi liburu, zein baino zein ederrago. Hortxe daude orain edonoren eskura, ehunka ordutako lanaren emaitza. Baina zalantza eta kezka larriak izan zituen honetan ere. Nola hartuko zuen jendeak gaztelerazko sail hori? Beldurra ematen zion euskara ez zen beste hizkuntza baten liburuak egiten hasteak. Aurrera egin zuen, ordea, erdaraz bilduma ederra osatuz.



# Azken urteetako ibilbidea

Zavala eta J. M. Iriondo  
Zangotzako jauregian. 2008.04.14

## GORAIPAMEN ETA SARIAK

Bakartia eta izu samarra zela esan dugu, baina aspergabea zen, lehiatia. Eta hura pittin bat ezagutu zuen edonork badakienez, ez zen sarien eta omenaldien zalea. Hala ere, onartu zituen inoiz holako goraiipamen eta sariak. Baina «oso gaizki pasatzen det nik olakoetan», esan ohi zuen beti.

Liburuen sailean, besteak beste, honako liburu hauek saritu zizkioten, oker ez bagaude: *Neronek tirako nizkin* (Auspoa 38, 1964) Sebastian Salaberriak eta Antonio Zavalak idatzia, *Auspoa* sailean. Eta *Biblioteca de Narrativa Popular* sailean, berriz, *En*

*la ribera de Cares* (BNP 11, Juan Rugarcia-Antonio Zavala) liburuari «Premio Asturias 1996» eman zioten; eta *En la montaña de León* liburuari (Daniel Cuesta-A. Zavala) «Premio al mejor libro leonés de 1996» (Leongo Diputazioa saria), bien lana goraiipatuz.

Horiez gainera, Durangoko Gerediaga elkarteak urtero antolatzen duen Euskal Liburu eta Disko azokan *Argizaiola* saria eman zioten, 1996ko abenduan; 1999an, berriz, erakusketa bibliografikoa antolatu zuten azoka horretan, bere omenez. Derioko Labayru ikastegiak, aldiz, *Gatzontzia* saria eman zion, 1997ko uztailaren 11n.



Zavala, ostatuko nagusi Jose Mari, bere alaba alkatesa eta Joakin Berasategi

## Honoris causa doktore

Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultateko Euskal Filologia sailak antolatuta, *Honoris Causa Doktore* izendatu zuten, 1999ko azaroaren 17an, Gotzon Garate jesuita eta Filosofia eta Letretako lagun batzuen eskariz. Hango Parainfoan gauzatu zen izendapen-ospakizun eder eta handi hura, Unibertsitate horretan herri-literaturari buruzko jardunaldiak eta urte askoan *Auspoa* saileko liburuak argitara eman zituen Sendoa argitaletxeko bere lagunek Zavalari eta *Auspoa* bildumari zego-kion erakusketa osatuta.

*Laudatio* goralpen-hitzaldiaren ostean, Antoniok, urduri baino urduriago, urte askoan

egindako bere lanaren aipamena egin zuen, eta esan: «Biltzaile izan naiz, eta baita biltzaile ere... Eta sari onekin, nereari ez ezik beste askoren buruari ere eransten diozute txapela». Saria beretzat ez baina herriarentzat gauza handia zela aitortu zien ohore hori egin ziotenei: «...neretzat bakarrik ez da. Gure erriarentzat ere gauza aundia dala derizkiot. Gure erriaren izkerak eta literaturak oso gutxitan artu dute gaurkoa aiñako goralpenik eta onespenik» esan zuen.

## Tolosan herriko seme kuttun

Bere jaioterri Tolosak *Herriko seme kuttun* izendatu zuen, 2000ko urriaren 6an eta 7an. Herriaren omenaldi hura zela-ta, ekintza bereziak egin ziren. Besteak beste, Zavalaren «Auspoaren Auspoa» erakusketa antolatu zen Antonio Maria Labaien kultur etxean, urriaren 3tik 15era. Eta *Herriko seme kuttun* izendatzea, berriz, herriko etxeko Pleno Aretoan egin zen, urriaren 7an, eguerdian. Izendapen aurreko egunetan, eta egunean bertan, beti gauza bera errepikatzen zuen Antoniok: «Ia leenbaitleen pasatzen dan au ere. Gaiñera, Tolosan badago nik baiño me-rezimentu geiago duen jendea».



Egun berean bertso-jaialdia antolatu zuen Laskorain Kulturalak Tolosako Leidor Zinemaman, bertsoariak eta bertsozaleek beti zor izango dioten esker onaren lekuko, hori nahikoa den ala ez zalantza handiak baditugu ere. Lan estimagarria bezain estimagaitza egin zuen A. Zavalak berrogeita hamar edo gehiago urtean, bertso-paper eta ahozko-tasunaren sailean.

## ARTXIBOA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIRA

Pello Esnal eta Joxemari Iriondo, 2005eko otsailaren 2an, Antoniorekin Xabierren elkartu ginenean, hitzeman zuen Zavalak bere artxiboa Gipuzkoako Foru Aldundiari utzi-



A. Zavala, *Doctor Honoris Causa*, 1999.11.23

ko ziola, bildumaren %80 Gipuzkoan jaso zuela-ta. Halaxe, hainbat urtean batu zituen bertso-paperak, eskuizkribuak, liburuak, grabazioak, argazkiak eta negatiboak, de-





A. Zavala *Honoris Causa* Doktore. Deustu,  
1999.11.23. Inaxio Salaberria, J. M. Iriondo,  
J. M. Etxezarreta



Henrike Knörr, A. Zavala eta J. R. Zubimendi,  
1999.11.23, *Doctor Honoris Causa*

nak Gipuzkoarako utzi zituen, Euskal Herri osoaren eskura jar ditzaten eroso.

2008ko urriaren 30ean, Xalbador, Uztapide, Otaño, Txomin Garmendia eta beste zenbaiten eskuizkribuak bidali zituen Koldo Mitxelena Kulturunera. Eta azaroaren 10 eta 11n, dozena pare bat kaxa bete genituen

berak aukeratutako bertso paper eta liburuz. Azkenik, 2009ko urtarrilaren 13an eta 14an ekarri genuen Xabierren zegoen material guztia Donostiara, egungo baliabide teknikoek eskatzen dutenaren arabera sailkatu, digitalizatu, ordenatu eta nahi dutenen eskura jarri ahal izateko. Beti ere erabilera zuzen eta jatorra egiteko izan dadila, jatorriak/iturriak eta behar diren beste aipamenak zintzo eginez. Nori berea, hori da legea.

## HERIOTZA MINGARRIA

2008ko abenduaren 16an bisitatu genuen azkenengo aldiz, Koldo Mitxelena Kulturuneko zuzendari F. Lopez Landatxe jaunak eta biok, Eguberri jaiak baino lehen berearekin hitz-aspertu bat eta egun-pasa egiteko ametz. Sekula baino osasuntsuago eta itxura hobean ikusi genuen, eta halaxe esan genion berari ere. Baina, «Zer moduz zaude, Antonio?» galdetu eta, «Badakizu, ortxe, *en la primera línea* ortan. Gure lagun zaar asko ere joan ziran-da» erantzuten zuen. Bere azkena hurbil samar ikusten zuen nonbait, nahiz eta «lan asko daukat eskuartean, eta Aitaren etxera joateko presarik ez det orain-goz» eransten zuen.

Urtezahar egunean hitz egin genuen elkarrekin azkenengoz, sei-zazpi urtean egunero egin genuen bezalaxe. Hiru bider hitz egin ere: Itxaropena argitaletxetik Koldo Mitxelenara laster heldu behar zuen Joxe Manuel Arriola *Mondragoiko kalezainaren* liburua zertan zen, Euskaltzaindiak esku artean zerabilen Antonio Arruerena nola zegoen eta abar galdetu zidan...

Baina urtarrilaren 2ko goizean gure asmoak eta ametsak goitik behera aldatu ziren. Bere koinata Izaskunek dei egin zidan, izututa, Antonio Iruñeko San Migel gaixoetxera oso gaizki eraman zutela esanez: «klinikoki hilda dagoela esan digu medikuak». Eguerdian eta arratsaldean dozena erdi bat aldiz hitz egin genuen gero. Eta azkenik, arratseko zortzi t'erdia pasatxo zirela hots egin eta «Antonio hilda!», esan zidan.

Albisteak lur jota utzi ninduen eta, adiskide batzuei telefonoz deitu ondoren, Xabierko jesuiten buru aita Jose Luis Zinkunegirekin ere hitz egin nuen bizpahiru aldiz, hileta noiz eta nola egiteko asmoa zuten jakin nahita; eta hartarako gure laguntasuna gustura onartuko zukeela esan zidan. Eta halaxe,



Zavala eta Landatxe, 2008.07.17an



Antonio Zavala bere anaia-arreba eta ilobekin,  
Deustu 1999.11.17

Antoniok hain maitea zuen Xabierren antolatzen dena, urtarrilaren 4an.

1954ko Erregeen bigarren edo hirugarren egunean Antonio Zavalak hasitako proiektua lutoz jantzi zen 2009ko urtearen hasieran. Eta Xabierko hilerrian utzi genuen maisua, goietako paradisuari betiko argia



Leiren, 2008.09.05ean



A. Zavala eta Joxemari Iriondo, 2008.11.11



Xabierren, Zavalarekin

eta zoriona izan dezan eskatuz; eta malkotan agurtu genuen Izaskungo Andre Mariaren himnoa kantatuz. Eta Lazkao Txikiren bertsoaz gogoratu ginen asko:

Arritzen gaitu Aita Zabalak  
eginda uzten dun lanak.  
Galtzear zeuden ainbeste bertso  
txukun jaso ditu danak,  
paperetatik bilduak eta  
lagun artean emanak,  
gure izkuntza bizi dan arte  
irakurriko diranak.

# BIDOGULLEAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco